

LAPURRETA ▶

Lapurreta egin dute Erdialdeko Durant bitxidendan

Lau mutil gazte sartu ziren atzo bitxidendan, 11:00ak aldera. Erakusleihoko hainbat bitxi lapurtu zuten



Udaltzaingoa, anbulantzia eta jendea atzo, Askatasunaren Hiribideko Durant bitxidendaren aurrean. I. L.

ONINTZA ODRIOZOLA

Lapurreta egin zuten atzo goizean Askatasunaren Hiribideko Durant bitxidendan. Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, lau mutil gaztek egin zuten lapurreta bitxidendan, 11:00ak aldera. Atea irekitzera hurbildu zen dendaria bultzatzen zuten bitxiak.

eta barrura sartzea lortu zuten. Lekukoaren arabera, dendan bost lagun zeuden une horretan, eta lapurrek dendaren atzealdeko gelan sartu zituzten, bi dendariekin batera. Erakusleihokoan zeuden hainbat bitxi lapurtu zituzten, eta ondoren, ihes egitea lortu zuten bi motorretan.

Lekukoek IRUTXULOKO HITZARI adierazi ziotenez, berehala dendarietako batek antsietate-krisia izan zuen, eta anbulantzia igo behar izan zuten ospitalera.

Ikusmin handia piztu zuen lapurretak, Askatasunaren hiribidean jende asko baitzeibilen ordu horretan.

HERIOTZA ▶

Gizon bat hil da, ustez bihotzekoak jota

Arratsaldean hil zen, Pasealeku Berriko barraketan lanean ari zela

O. ODRIOZOLA

Barraketako langile bat hil zen atzo Pasealeku Berrian. Heriotza 16:40ean gertatu zen, eta lehen hipotesien arabera, bihotzekoak jota hil zen gizona. Udaltzaingoa ikerketa zabaldu du gizonaren heriotzaren arrazoia aztertzeko.

Bere aldetik, Ernesto Gasco Herri Segurtasun zinegotziak heriotzaren inguruko datu batzuk eman zituen. Gascok arrazoi naturalei egotzi zien 30 urteko gizonaren heriotza. Dirudenez, gizona entxufe batekin ari zen lanean Pasealekuko barraketan, bihotzekoak eman zionean.

Udaleko iturriek baieztatu zuten, hil aurretik gizonak ondoezik zegoela esan zien inguruko barraketako langilei. Horrek heriotza naturalaren hipotesia indartzen duela esan zuen Gascok. «Dena dela, Udaltzaingoa arduratuko da hipotesi hau egiaztatzen. Ikerketa abiatu du heriotzaren arrazoia aztertzeko», esan zuen Gascok.

Gizona ferietako salerosle familia batekoa zen. Duela aste batean zorabiatu egin zela jakinarazi zioten haren senideek Udaltzaingori. Ondorengo egunetan jakingo dituzte ikerketaren emaitzak eta heriotzaren arrazoia.

ZEZENKETAK ▶ HARRAPAKETA

Antonio Barrera toreatzailea zauriturik

Atzoko Ilunbeko zezen-saioan Antonio Barrera toreatzailea zauritu zuen Jandilla ganadutegiko zezen batek. Lehendabiziko zezenarekin ez zuen arazorik izan Barrerak. Bosgarren zezena, bere bigarrena, toreatzera ateratzen zirenean, zezenari kapotearekin hurbildu zitzaionean, zezenak harrapatu egin zuen. Hamar zentimetroko adarkada egin zion toreatzaileari. Zezen-plazan bertan egin zioten diagnosiaren arabera, eskuineko klabikula hautsi zuen Barrerak. Quiron klinikara eraman behar izan zuten toreatzailea. Juan Miguel Nuñez adituak egin zuen atzoko zezenketaren balorazioa, ohiko mahainguruan. Nuñezek Barreraren zorte txarra nabarmendu zuen. «Izugarritzko zorte txarra izan du Barrerak, horrelako zezenketa on batean zauritzeagatik. Laster Bilboko, Bartzelonako eta Logroñoko plazetan toreatu behar zuen, gainera», adierazi zuen. Barrera Cesar Rincon toreatzailea ordezkatzera etorria zen Donostiara.

MUGIKORTASUNA ▶



Bi zulo sabaian

Raul Perez ▶ Bi zulo daude Egiako lur azpiko pasabidearen sabaian. Duela aste eta erdi inguru, sabai puska lurrera erori zen, eta joan den ostegunean, beste sabai zati bat erori zen. Udaleko Mantentze Lan Sailak aste hasieran —artean zulo bakarra zegoen— IRUTXULOKO HITZARI jakinarazi zionez, igeltsero bila zebiltzan pasabideko sabaia konpontzeko. AITZIBER GURUTZEAGA

HIRIGINTZA ▶



Aransguiren egoitza prest

R. Perez ▶ Egun gutxi barru Aransgui Gipuzkoako Har Gorren Gurasoen Elkarrekin egoitza berria zabalduko du Intxaurren, Mons eta Zarategi pasealekuen artean. Zenbait urtez egoitza Frantziako pasealekuan izan eta gero, iaz eraikin berria egiten hasi ziren Intxaurren. Bertan hainbat zerbitzu emango dizkiete haur gorrei eta haien gurasoei.

MUGIKORTASUNA ▶



Berrarako bidea bukatuta

R. Perez ▶ Azken hilabeteotan lanean ibili dira Berra zaharren egoitzaren inguruan. Funtsean zaharren egoitzara joateko bidea txukundu dute —aurretik ez zegoen espaloirik—. Nabarmenezkoa da, lanokin lotuta, kiroldegian atzealdean lur gaineko aparkalekua egin dutela. 50 autorentzako tokia dago bertan. Motorrak uzteko tokia ere badago.